

KONTRATAZIO-BALDINTZA OROKORRAK

1. APLIKAZIO-ESPARRUA

- 1.1. Kontratazio-baldintza orokor hauek («**baldintza orokorrak**») Kids&Us zentroa ustiatzen duen sozietatearen («**hornitzailea**») eta bezeroaren artean ingelesa irakasteko zerbitzuak emateari aplikatzekoak dira, eta une oro hornitzailearen eta bezeroaren artean (biak batera, «**alderdiak**») indarrean dauden baldintza partikularretan identifikatuta egongo dira.
- 1.2. Baldintza orokor hauetan aurreikusitako ondorioetarako:
 - a. «**Baldintza partikularrak**» osatzen dituzte matrikula-orriak (termino hori atalean definitzen den bezala, birmatrikulazioek (termino hori atalean definitzen den bezala) eta, hala badagokio, baldintza orokor hauetan xedatutakoaren arabera alderdiek egiten dituzten bestelako dokumentu eta akordio komertzialek ere, une bakoitzean aldatzen diren moduan.
 - b. «**Bezeroa**» da hornitzailearen zerbitzuak kontratatzen dituen pertsona. Zerbitzu horiek bere izenean edo bere tutoretzapeko edo guraso-ahalpeko adingabe baten izenean eta hura ordezkatzuz kontratatzen ditu. Bezeroak ezin ditu zerbitzu horiek hirugarrenen esku utzi, eta ezin ditu bezeroa edo zentroan ikasle gisa inskribatuta dagoen tutoretzapeko edo guraso-ahalpeko adingabea ez den beste inork erabili.
 - c. «**Zerbitzuak**» dira Kids&Us-en sistemaren arabera ingelesa irakasteko ematen diren zerbitzuak, bezero batek unean-unean kontratatzen dituenak baldintza partikularren araberrako irismenarekin, eta betiere hornitzaileak eman behar dituenak, baldintza partikular horien eta baldintza orokor hauen arabera.
 - d. «**Kontratua**» dira baldintza partikularrak eta baldintza orokorrak, biak batera.
 - e. «**Mousy**» dira Kids&Us metodologiaren lehen ikastaroko urtebetetik gorako ikasleak.
 - f. «**Linda**» dira Kids&Us metodologiaren lehen ikastaroko 2 urtetik gorako ikasleak.
- 1.3. Baldintza orokorrak eta baldintza partikularrak euskaraz daude idatzita. Baldintza orokorren eta baldintza partikularren artean kontraesanik badago, baldintza partikularretan aurreikusitakoa gailenduko da.
- 1.4. Baldintza orokor hauek onartzeak –dela horiek sinatzearen bidez, dela, bestela, matrikula-orria edo birmatrikulazio-formularioa sinatzearen bidez (betiere baldintza orokorren kopia bat erantsita badute edo, bestela, hornitzailearen webgunean baldintza orokor hauetarako esteka bat badute)– esan nahi du:
 - a. Bezeroak hemen azalduakoa irakurri, ulertu eta onartzen duela, eta, baldintza orokorrein zein baldintza partikularrei buruz izan ditzakeen zalantzak argitzeko, hornitzaileari behar diren galderak egiteko aukera izan duela.
 - b. Bezeroa kontratatzeko gaitasuna duen pertsona bat dela.
 - c. Bezeroak kontratuan agertzen diren betebeharrak bere gain hartzen dituela.
- 1.5. Baldintza orokorrak aldatu ahal izango dira, adibidez, lege-, arau-, segurtasun- edo merkataritza-arrazoiengatik, betiere proposatutako aldaketak bezeroari igorri ondoren hark bere borondatez eta

inolako eragozpenik gabe onartzen baditu. Baimen hori onartu dela ulertuko da, baldin eta hogeita hamar (30) egun natural igarotzen badira bezeroari entregatzen zaizkionetik (jasotze-agiriarekin) edo bezeroari hornitzailearen webgunean (<https://www.kidsandus.es/es>) daudela jakinarazten zaionetik, hark ez badu idatziz adierazten aldaketa horiek sartzearen aurka dagoela.

2. ZERBITZUAK

2.1. Kontratua onartu aurretik, bezeroari honako alderdi hauen berri eman zaio mezu elektronikoko baten bidez edo paperezko euskarrian entregatuz: (i) eskainitako ikastaroen katalogo osoa, haien funtsezko ezaugarriekin eta helburuekin, bai eta iraupenarekin eta orduekin ere, eta Kids&Us metodoan oinarritutako irakaskuntza-sistemaren ezaugarri nagusiekin; (ii) hornitzailearen identifikazio-datuak (non bere kontura jarduten duela berariaz adierazten den) eta zerbitzuak emango dituen zentroarenak; (iii) bezeroak interesa erakutsi duen ikastaroaren prezioa, zerga eta tasa guztiak barne, bai eta materialen kostua ere (termino atalean definitzen da) («prezioa», batera). Bezeroak kostu hori nahitaez hartu beharko du bere gain, materialak ikastaroa egiteko beharrezkoak direlako, Kids&Us irakaskuntza-metodoaren berezkoak dira eta, bai eta ordaintzeko baldintzak eta bitartekoa ere; (iv) hornitzaileak, antolaketa-arrazoiak tarteko, ikasturtea hasi aurretik zenbat ikasle birmatrikulatu diren jakiteko duen beharra, eta, ondorioz, urtero telematikoki egingo den birmatrikulazio prozedura ere bai; (v) bezeroak uko egiteko duen eskubidea atalean jasotzen diren baldintzetan; eta (vi) baldintza orokor hauen edukia, bezeroari horiei buruzko galderak egiteko aukera eman izan ostean.

2.2. Zerbitzuak matrikula-orrian edo birmatrikulazio-formularioan zehaztutako zentroan emango dira (jarraian definitutako diren terminoen arabera), dagokionaren arabera («zentroa»).

2.3. Eskolen ordutegiak eta iraupena, ikastaroaren arabera:

- a. **Babies** (Mousy-Linda): Babies ikastaroetako eskolen ohiko iraupena 45 minutukoa izango da, astean behin. Eskolan ikasle bakarra izanez gero, eskolak 30 minutu iraungo ditu. Izan ere, arreta osoa ikasle horretan jarriko denez, haren adinaren araberrako kontzentrazio-gaitasunera egokitu behar da denbora. Kanpoko zentroetako Babies ikastaroetako eskolen kasuan, iraupena 30 minutukoa izango da.
- b. **Kids** (Sametik Pam&Paulera): Sametik Pam&Paulera bitarteko ikastaroetako eskolen ohiko iraupena 60 minutukoa izango da, astean behin.
- c. **Ben&Brenda**: Ben&Brenda ikastaroetako eskolen ohiko iraupena 90 minutukoa izango da, astean behin.
- d. **Tweens 1 eta 2**: Animal Planet ikastaroetako eskolen ohiko iraupena 60 minutukoa izango da, astean bitan.
- e. **Tweens 3tik Teens 4ra**: Fairy Tales, Mysteries eta The Future ikastaroetako eskolen ohiko iraupena 90 minutukoa izango da, astean bitan.
- f. **Teens 5etik Teens 6ra**: Subscription ikastaroetako eskolen iraupena aukeratutako modalitatearen araberrakoa izango da: 90 minutu, astean bitan; edo, 90 minutu, astean behin.
- g. **One-to-one** eskolen kasuan (ikasle bakarra), baliteke eskolaren iraupena aldatzea.

- 2.4. Eskolen ordutegi zehatza baldintza partikularretan agertzen dena izango da eta, beraz, ikasturte bakoitza aldatu ahal izango da, aukeratutako ikasturtearen eta une bakoitzean erabilgarri egon daitekeen ikastaro bakoitzari esleitutako ikasle-kopuruaren arabera.
- 2.5. Ikastaroa, oro har, urte natural bakoitzeko irailean hasiko da, eta hurrengo urteko ekainean amaituko da, data zehatzetan eta baldintza partikularrek zehaztutako eskola-egunen egutegiaren arabera.
- 2.6. Eskola-egutegian markatutako eskoletara bertaratu ezin izan diren ikasleek, arrazoia edozein izan dela ere, ezingo dituzte horiek berreskuratu.
- 2.7. Babies ikastaroan, gehienez ere bost (5) ikasle izango dira ikasgelako, eta zortzi (8) gainerako ikasturteetan. Kanpo-zentroetan ematen diren Babies eskolen kasuan, gehienez zortzi (8) ikasle egongo dira taldeko. Urte natural bakoitzeko urriaren 1ean ikasgela bakoitzean dagoen ikasle kopurua hiru (3) edo txikiagoa bada, eta ez badago ikasle horiek har ditzakeen beste talderik, hornitzaileak taldea desegiteko eskubidea izango du, eta, kasu horretan, bezeroari urrian zehar matrikula gisa ordaindu duen edozein kopuru itzuliko zaio, atalean aipatzen diren materialen kostua barne.
- 2.8. Mousy ikastaroko ikasleak heldu batez lagunduta egongo dira ikasturte osoan. Aldiz, Linda ikastaroko bost (5) ikasleak hasierako hilabeteetan soilik egongo dira heldu batek lagunduta. Kanpo-zentroetan ematen diren eskoletan, ikasleekin batera ez da heldurik egongo.
- 2.9. Irakasleek ikastaroak emateko titulazio akademiko edo kualifikazio profesional egokia dute.
- 2.10. Zerbitzuak kontratatzeke baldintza orokorrak onartzen badira, eta, horrez gain, baldintza partikularrak onesten badira, ulertuko da bezeroak badakiela eta onartzen duela zerbitzu horiek Kids&Us-en irakaskuntza ez-arautuaren metodoan oinarritzen direla. Metodo horrekin, ikaslea zentrorara bertaratu da eta hezkuntza-material propioak («materialak») erabiliko ditu. Material horien kostua bezeroak hartuko du bere gain eta, material hori, ikastaro bakoitzeko beharretara egokitzeari kalterik egin gabe, honako hau izango da (etaparen arabera):
 - b. **Babies:** lau (4) liburu Mousy ikastarorako eta bost (5) liburu Linda ikastarorako, My Locker aplikaziorako sarbideaz gain (audioak eta beste eduki osagarri batzuk daude) eta My Kids aplikaziorako sarbideaz gain (familiaren eta Kids&Us zentroaren arteko noranzko biko komunikaziorako aukera ematen du).
 - c. **Kids (Sametik Pam&Paulera):** 1 Booklet, 4 Sticker Book, 4 Workbook (bat ikastaroko istorio bakoitzeko), My Locker aplikaziorako sarbidea (audioak eta beste eduki osagarri batzuk daude) eta My Kids aplikaziorako sarbidea (familiaren eta Kids&Us zentroaren arteko noranzko biko komunikaziorako aukera ematen du).
 - d. **Ben&Brenda:** 1 Activity Book eta 1 Student Book, My Locker aplikaziorako sarbidea (audioak eta beste eduki osagarri batzuk daude) eta My Kids aplikaziorako sarbidea (familiaren eta Kids&Us zentroaren arteko noranzko biko komunikaziorako aukera ematen du).
 - e. **Tweens 1 eta 2:** Student Booka, My Way aplikaziorako sarbidea (bertan dago ikasgelan lantzen diren eduki fisikoekin lotutako eduki digitala). Bai eta My Kids aplikaziorako sarbidea ere (familiaren eta Kids&Us zentroaren arteko noranzko biko komunikaziorako aukera ematen du).

- f. **Tweens 3tik Tweens 4ra:** Student Booka, T&T zONE plataforma digitalerako sarbidea eta My Kids aplikaziorako sarbidea (famiariaren eta Kids&Us zentroaren arteko noranzko biko komunikaziorako aukera ematen du).
 - g. **Teens 1etik Teens 2ra:** Student Booka, T&T zONE plataforma digitalerako sarbidea eta My Kids aplikaziorako sarbidea (famiariaren eta Kids&Us zentroaren arteko noranzko biko komunikaziorako aukera ematen du).
 - h. **Teens 3:** Student Booka, GRIP 2021 aplikaziorako eta T&T zONE plataforma digitalerako sarbidea eta My Kids aplikaziorako sarbidea (famiariaren eta Kids&Us zentroaren arteko noranzko biko komunikaziorako aukera ematen du).
 - i. **Teens 4:** Student Booka, T&T zONE plataforma digitalerako sarbidea eta My Kids aplikaziorako sarbidea (famiariaren eta Kids&Us zentroaren arteko noranzko biko komunikaziorako aukera ematen du).
 - j. **Teens 5etik Teens 6ra:** 1 edo 2 Student Book (aukeratutako modalitatearen arabera), T&T zONE plataforma digitalerako sarbidea eta My Kids aplikaziorako sarbidea (famiariaren eta Kids&Us zentroaren arteko noranzko biko komunikaziorako aukera ematen du).
- 2.11. Zerbitzuak irakaskuntza ez-araututzat hartzen dira, eta, hori dela eta, hornitzaileak eman ditzakeen diplomak edo ziurtagiriak ez dira ofizialak. Hornitzaileak, ikasleek hala nahi izanez gero, nazioartean aintzatetsitako diplomak lortzeko azterketak egiteko prestatuko ditu. Azterketa horiek egiteko matrikula edo eskubideen ordainketa ez dira hornitzaileak eskainitako ikastaroen prezioan sartzen.

3. UKO EGITEKO ESKUBIDEA

3.1. Bezeroak zerbitzuei uko egiteko eskubidea izango du baldintza partikularrak sinatzen direnetik hamalau (14) egun naturaleko epean, arrazoia adierazi behar izan gabe eta kostuak ordaindu behar izan gabe. Bezeroak uko egiteko eskubidea erabiltzen badu, hornitzaileak bezeroak ordaindutako zenbateko guztiak itzuli beharko dizkio, bezeroak hasierako transakziorako erabilitako ordainketa-bide bera erabiliz. Material fisikoei dagozkien zenbatekoak haiek itzuli ostean soilik itzuliko dira, eta erabili gabe badaude bakarrik onartuko dira.

3.2. Atal honetan arautzen den uko egiteko eskubidea edozein bitarteko idatziren bidez baliatu ahal izango da, eta bezeroak alde bakarretik egiten badu, hornitzaileak atzerapenik gabe jakinarazi beharko dio, euskarri iraunkor baten bidez, uko egitearen jasotze-agiria jaso duela.

4. PREZIOA

4.1. Bezeroak honako kontzeptu hauek ordainduko ditu zerbitzuengatik, eta horien zenbatekoa eta ordainketa-baldintzak baldintza partikularretan une bakoitzean (eurotan adierazita) jasotzen direnak izango dira:

- a. Matrikula eta birmatrikula, dagokionaren arabera.
- b. Ikastaro bakoitzak prezio bat izango du.
- c. Materialak.
- d. Zergak, indarrean dagoen legediaren arabera aplikagarriak direnak.

- 4.2. Baldintza partikularrek beste zerbait adierazi ezean:
- Matrikularen zenbatekoa matrikula-orria edo, hala badagokio, birmatrikula sinatu ondoren ordainduko da.
 - Materialen zenbatekoa matrikula-orria edo, hala badagokio, birmatrikula sinatu ondoren ordainduko da, ikaslea ikastaroan benetan noiz hasten den kontuan hartu gabe.
 - Prezioa, baldintza partikularretatik aterako dena, oroharrekoa da, eta, beraz, ikastaroari lotutako ezaugarriak kontuan hartuta kalkulatuko da, eta alderdien artean itundutako aldizkako ordainketek ez dituzte aldi jakin horri dagozkion eskola-orduak ordainduko. Beraz, edozein arrazoi dela medio (jaieguna, gaixotasuna, ezinbesteko kasua edo beste edozein kausa), bezeroak ez badu jasotzen prezioaren aldizkako ordainketaren bati dagokion eskola-orduen kopurua, ez du ordu horiei dagokiena jasotzeko eskubiderik izango, ez eta eskola horiek berreskuratzeko eskubiderik ere.
 - Kasu bakoitzean aplikatu beharreko zergak indarreko araudian aurreikusitako moduan ordainduko dira.
- 4.3. Hornitzailea ataletan aurreikusitako kasuetan bakarrik egongo da matrikula eta materiala itzultzera behartuta. Aplikatzekoa den araudian xedatutakoari ezertan kalterik egin gabe, hornitzaileak ez du matrikularen edo materialaren zenbatekoa itzuli beharrik izango bestelako ezein kasutan. Bereziki, bezeroak ulertzen eta onartzen du ikastaroa uzteak, arrazoa edozein izanik ere, edo bezeroak hornitzailearekiko duen harremana amaitzeak zenbateko horiek galtzea dakarrela.
- 4.4. Bezeroak zerbitzuen kontraprestazioan sartzen den zenbatekoren baten ordainketa helbideratu badu eta ordainagiriren bat itzultzen bada, bezeroak bere gain hartuko ditu inguruabar horri lotutako kostu guztiak, hornitzailearentzako kaltegabetasun osoz.
- 4.5. Edozein deskontu, prezio-murrizketa eta/edo bestelako beherapen egiteko, alderdiek alde zuzena aurretik eta idatziz adostu beharko dute.
- 4.6. Matrikula eta ikastaroak pertsonalak eta besterenezinak dira eta, beraz, matrikula-orrian identifikatutako ikaslea ez den beste inor ezingo da joan bezeroak kontratatutako ikastaroetara.

5. MATRIKULA-ORRIA

- 5.1. Hasiera batean, bezeroak kontratatuko ditu zerbitzuak, dagokion matrikula-orria («**matrikula-orria**») sinatuta. Orri hori idatziz formalizatuko da, posta elektronikoaren, posta arruntaren edo eskura emandako paperaren bidez. Matrikula-orri bakoitzean honako hauek jaso beharko dira, gutxienez:
- Bezeroaren eta zerbitzuak kontratatzen dituen ikaslearen identifikazioa, bai eta bezeroaren eta ikaslearen arteko harremana eta, hala badagokio, harekiko duen guraso-ahala edo tutoretzaren egiaztapena.
 - Eskatutako zerbitzuak, intereseko ikastaroa adierazita eta haren xehetasunak eta ezaugarriak adierazita.

- c. Zerbitzuen kontraprestazioa.
 - d. Berariaz aipatzea bezeroak baldintza orokorrak berrikusi dituela, hornitzaileak bezeroari kontsultak egiteko aukera eskaintzen diola, eta, horrez gain, bezeroak baldintza orokorrak berariaz onartzen dituela, hala badagokio, atalean aipatzen den kontratu aurreko informazioa eskuratu duela.
 - e. Bezeroak hurrengo ikastaroetarako informazioa eta birmatrikula-formularioak posta elektronikoz, hornitzailearen webgunean horretarako sortu den gunean edo alderdien artean hitzartutako beste edozein bitartekoren bidez jasotzeko ematen duen baimena. Ikastaro horiek urrutitik kontratatu ahal izango dira, eta baldintza orokor hauek aplikatuko zaizkie.
 - f. («Alfa Txartela») dokumentuan, bezeroak bere datu pertsonalak, ahotsa eta irudia tratatzeko ematen duen baimena, bai eta eremu horretan dituen eskubideak eta horiek erabiltzeko moduaren adierazpena ere, eta tratamendu horren arduradunen identifikazioa.
- 5.2. Matrikula-orria ez da loteslea izango alderdientzat, hornitzaileak onartzen duen arte eta bezeroari posta elektronikoz edo posta arruntez bidaltzen zaion arte, edo matrikula-orria («**onarpena**») bidaltzeko metodo berari jarraitzen zaion arte. Data horretatik aurrera, alderdien arteko harremana hasitzat joko da atalean aurreikusitakoarekin bat etorritik, eta hornitzaileak bezeroari onarpena bidaltzeari inolako kalterik egin gabe, hornitzailea behartuta dago matrikula-orriaren eta haren onarpenaren kopia digitalizatu bat zentroan gordetzera, egindako kontratazioaren froga gisa.
- 5.3. Hornitzaileak ez du matrikula-orririk onartzeko inolako betebeharririk, eta, beraz, horiek ukatzeko eskubidea du, eta horren ondorioz ez zaio inolako erantzukizunik sortuko hornitzaileari.

6. BIRMATRIKULAZIOAK

- 6.1. Urtero, ikasturtea amaitu baino lehen (martxotik maiatzera bitartean, gutxi gorabehera), hornitzaileak idatzizko jakinarazpen bat igorriko dio bezeroari. Jakinarazpen hori eskura emanez, postaz eta posta elektronikoz eman ahal izango da. Bertan, hurrengo ikasturteari buruzko informazioa emango da, atalean jasotzen dena («**birmatrikulazioaren jakinarazpena**»). Horrez gain:
- a. Ikasturte berrirako birmatrikula («**birmatrikula**») egiteko aukera, zentrori bertaratuta ez ezik, urrutitik, bitarteko elektronikoen bidez, birmatrikulatzeko formularioa betez («**birmatrikulatzeko formularioa**»).
 - b. Honakoak berariaz aipatzea:
 - (i) Birmatrikulazio-formularioa beteta itzultzeak esan nahi du, zentroak hura onartzen duenean, bezeroak ordaindu egin beharko duela ikasturte berriko kontraprestazioa, baldintza partikularretan adierazten den moduan, eta baldintza orokorrak onartuko direla.
 - (ii) Hornitzaileak birmatrikulazio-formularioa onartu ondoren, birmatrikulazio-formularioaren baldintzek (baldintza partikularretatik hartuko dira) eta baldintza orokorrek arautuko dute alderdien arteko harremana, kontratatutako ikastaro berria amaitu arte.

(iii) Hornitzaileak bere onarpena bidaliko dio bezeroari, euskarri iraunkor baten bidez artxibatze atalean aurreikusitakoarekin bat etorritik, eta hornitzaileak bezeroari birmatrikulazio-formularioaren onarpena bidaltzeari inolako kalterik egin gabe, hornitzailea behartuta dago bezeroaren birmatrikulazio-formularioaren eta hornitzailearen onarpenaren kopia digitalizatu bat zentroan gordetzera, egindako kontratazioaren froga gisa.

6.2. Birmatrikulazioari unean-unean indarrean dagoen bitarteko elektronikoen bidezko urrutiko kontratuen erregulazioa aplikatuko zaio.

7. ERREKLAMAZIOAK

7.1. Bezeroak zerbitzuekin lotutako edozein erreklamazio egin ahal izango du zentroan eskura dituen erreklamazio-orrien bidez.

7.2. Araudi nazional aplikagarrian xedatutakoaren arabera, jakinarazten da bezeroak, hala badagokio, zerbitzuei buruzko erreklamazio bat aurkeztu ahal izango duela, kontsumitzaileekin edo erakunde eskudun baliokidearekin auziak modu alternatiboan ebazteko plataforman, legez aurreikusitako kasuetan, eta hornitzailea ez dagoela bertan parte hartzera behartuta.

8. KALTEENGATIKO ERANTZUKIZUNA

8.1. Hornitzaileak bere gain hartzen du zerbitzuen gaineko erantzukizun osoa, eta bezeroaren aurrean erantzungo du, hornitzaileari edo haren profesional edo enplegatuei egotz dakizkiekeen arrazoientatik, haietako edozeinen doloagatik edo erru larriagatik sortutako kalteengatik. Kasu horietatik kanpo, hornitzailearen erantzukizuna, zeina bezeroari benetan eragindako zuzeneko kalteengatik bakarrik izango den (eta beraz, lortu gabeko irabazia edo izen onari egindako kalteak kanpo daude), zerbitzuen kontraprestazioan bezeroarengandik jaso dituen zenbatekoetara mugatuko da.

8.2. Hornitzailea ez da, inola ere, bezeroaren faltsutzearen, ezkutatzearen edo beste edozein jokabideren ondorioz sortutako kalteen (osorik edo zati batean) erantzule izango, baldin eta kalte horiek dolozkoak edo zabarrak badira, ez badira fede onaren printzipioen arabera egin, edo bezeroaren arrazoizko kontrolatik kanpo dauden arrazoientatik gertatzen badira.

8.3. Hornitzaileak bezeroarekiko duen erantzukizuna, zerbitzuei dagokienez, bezeroak erreklamazioa idatziz bidaltzearen baldintzapean dago. Bertan, erreklamazioaren izaera eta erreklamaturako zenbatekoa behar bezala zehaztu beharko ditu, doloaren kasuan izan ezik, ezen legez ezarritako preskripzio-epea aplikatuko baitaio.

8.4. Hornitzaileak bezeroarekiko bakarrik izango du erantzukizuna, halakorik bada. Hornitzaileak ez du izango hirugarrenei sor dakizkiekeen kalteen erantzukizunik.

8.5. Inola ere ez da baztertuko hornitzaileak egintzengatik edo ez-egiteengatik duen erantzukizuna, baldin eta egintza edo ez-egite horien erantzukizuna ezin bada baztertu aplikatzekoak diren lege edo erregelamenduak betez, eta ezin bada murriztu aplikatzekoa den araudiaren arabera erreklamazioagatik –horrekiko dago erantzukizuna– dagokion gutxienerako zenbatekotik behera.

9. BEZEROAK ZERBITZU-HARREMANA AMAITZEA. IKASLEAREN BAJA.

9.1. Bezeroak edozein momentutan amaitu ahal izango du hornitzailearekin duen harremana eta, beraz, ikasleak edozein momentutan hartu ahal izango du baja matrikulatuta dagoen ikastaroan. Horretarako, zentroko zuzendariari idatzizko komunikazio bat helarazi beharko dio.

9.2. Matrikulagatik, birmatrikulazioagatik eta materialagatik ordaindutako zenbatekoak ez dira itzuliko, bezeroak uko egiten duenean edo hornitzailearen ez-betetze baten ondorioz bezeroak kontratua amaitzen duenean salbu. Ondorioz, bezero batek kontratua aldezturik amaitzeak ez dio zenbateko horiek itzultzea eskatzeko eskubiderik emango, ez eta ikastaroaren prezio gisa ordaindutako zenbatekoa ere.

Beraz, hura amaitzearen (edo ikaslearen bajaren) ondore-data ez badator bat baldintza partikularretan ezarritako ordainketa-aldiaren azken eskola-egunarekin, hornitzaileak beretzat hartuko ditu bezeroak jada ordaindu dituen zenbateko guztiak, eta bezeroak ezin izango du inolako kopururik itzultzea erreklamatu, nahiz eta ez dituen aldi horri dagozkion eskola guztiak jaso. Aitzitik, behin kontratua amaitzean, bezeroak ez ditu ordaindu beharko oraindik sortu ez diren zenbatekoak.

10. HORNITZAILEAK ZERBITZU-HARREMANA AMAITZEA.

10.1. Hornitzaileak kontratua baliogabetu eta zerbitzuak emateari utzi ahal izango dio, baldin eta (i) bezeroak ez baditu betetzen kontratuz dagozkion ordainketa-betebeharrak; eta (ii) ikasleak behin eta berriz diziplina-faltak egiten baditu edo irakaslearen jardunari kalte egiten dioten ekintzak egiten baditu. Kasu horietan, bezeroak ez du ordaindutako zenbatekoak berreskuratzeko eskubiderik izango, eragindako kaltearen ordainetan.

11. EZINBESTEKO KASUAK

11.1. Kids&Us zentro guztiei eragiten dien ezinbesteko kasuren baten ondorioz zentroa ixten bada edo zerbitzuak aurrez aurre ematea ezinezkoa bada, hornitzaileak erabat digitala den eredu bat eskainiko dio bezeroari; edukiak % 100 online izango dira edo eskola sinkronoak emango dira, ikastaroaren arabera.

11.2. Bezeroari garaiz emango zaio modalitate digitalaren berri, eta horrek ez du ekarriko baldintza partikularretan ikastaroari dagokionez itundutako kontraprestazioa aldatzea.

11.3. Baldintza orokor horien ondorioetarako, «ezinbesteko kasua» hau da: zerbitzuak ematea eragozten duen eta aurretik jakin ezin daitekeen eta saihetsezina den edozein gertakari, zirkunstantzia,

gertakizun edo gertaera (kausa edozein dela ere), betiere ezin zaionean hornitzaileari egotzi eta zerbitzuak emateko ezintasunaren eta aipatutako gertakari, zirkunstantzia, gertakizun edo gertaeraren artean kausalitate-harremana badago.

12. DATUEN BABESA

12.1. «Alfa txartela» izeneko dokumentu erantsian, banan-banan adieraziko dira honako hauek: bezeroaren datu pertsonalen, ahotsaren eta irudiaren tratamenduaren arduradunen identifikazioa; bezeroak aldez aurretik ezagutzen duen arduradun jakin bati datu horiek uzte hutsagatik esparru horretan dituzten eskubideak; datu horien helburua, kontserbazioa, hartzaileak eta araudiak ezarritako gainerako betekizunak.

12.2. Bezeroak informazio gehiago eskura dezake esteka honetan: <https://www.kidsandus.es/es/>

13. LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA

13.1. Espainiako lege komunak arautuko du kontratua.

13.2. Kontratu honen ondorioz alderdien artean sortzen den edozein gatazka edo desadostasun bezeroaren bizilekuko epaitegi eta auzitegiek ebatziko dute, alderdiei legokiekeen beste edozein foruri berariaz uko eginez.